

## **2010.eko E-28 ko koordinadoraren MANIFESTUA**

**Aldarte, Bizigay, EHGAM, Euskal Hartzak, MDM**

### **SEXUA EDONON, EDONOIZ. PRACTICA LIBERTAD**

Sexu komertzial eta publikoa ez da perfektua, argi dago; baina doako sexu pribatua ere ez. Izan ere, ez dugu uste sexualitate perfekturik dagoenik. E-28 koordinakundearen iritziz, merezi duten sexualitate bakarrak dira norberak askatasunez hautatzen dituenak, eta elkarri zoriontasuna, plazerak, poza eta ongizate psikologikoa ematen dizkietenak. Ez dago sexu-askatasun bakarra, sexu-askatasun asko baizik.

Ekainaren 28 honetan, sexu-askatasunen defentsa bizia egin nahi dugu; gaur eta hemen, Bilbon, arriskuan daudela uste dugulako. Honek esan nahi du sexualitate librea, askotarikoa eta demokratikoaren alde egitea. Gizabanako guztiok ordezkaturik gauden, eta sentsibilitate, pentsamolde, gustu, leku eta ordutegi guztiak berdintasunez errepertatuak diren sexualitatearen alde egitea.

Askatasun sexualei mugarik jartzekotan, jar ditzagun, bakar-bakarrak, inor nahi ez duena egitera behartua izan ez dadila bermatzeko. Ez dugu uste sexu-asaktasunak praktikatzeari "edozer edonorekin eta edonor kaltetu arren" egitea denik. Horrexegatik diñogu gure sexu-askatasunak kudeatu behar direla, aniztasunean eta elkarrenganako errespetuan oinarrituriko elkarbizitza indartuz. Hau dela eta, gizartearentzat nahi ditugun arautze sexuak, gizarte horretako partaide garen guztion aukeratzeko askatasuna kontuan hartu behar du; gizarte honetako partaide garen guztiona: prostituta, postmantero, abokatu, txapero, gazte, nagusi, bollera, heterosexua, politiko, seropositib, ezkondu, monja, sado-maso zein etorkinena.

Ezin da inor gutxietsi, inondik inora, ez moralki ez sozialki, eta are gutxiago zigortu, sexuan egiten edo sentitzen duenagatik. Sexualitatean praktikak eta gizabanakoak dira garrantzitsuak. Ustezko gehiengo edo gutxiengo sexualak -egiazkoak barik, interesen arabera direnak- irizpidetzat erabiltzen dira pertsonoi askeak izaten ez uzteko, ez sexualki autonomo, ezta independienteak ere. Erabil litekeen arau bakarra aniztasuna dela

aldarrikatzen dugu; aniztasun honek jerarkiarik eta normaltasun-kontzepturik gabeko sexualitateak sortzen dituelarik.

Honegatik guztiagatik, aurten adierazi gura dugu Bilboko Udalak onartu berri duena bezalako ordenantzen kontra gaudela erabat. Ordenantza honek espazio publikoaren erabilera arautzea du helburu. Bertako 16. Artikuluak kezkatzen gaitu batez ere, zeren *“espazio publikoan gizalegezkoak ez diren praktika sexualak eta protituzioa”* zigortzen baititu, interpretatzeko moduko esamolde zabalen bidez. Artikulu honen arabera, sozialki onartuta dauden adierazpen afektiboak jazartzera hel liteke, gay-lesbianon inbisibilitatea areagotuz. Baina ez hori bakarrik, argi eta garbi debekatzen du, baita ere, zerbitzu sexualen eskaintza eta eskaera kalean, prostituzioa gogor zigortuz; kontuan hartu gabe lan horretan diharduten gizon, transexual eta, gehienbat, emakumeak. Ordenantzak, eskubide gutxi dituen eta berez erasotzen erraza den kolektibo anitza zigortzen du. Honek pentsarazten digu ordenantzaren benetako xedea dela kaleetan dauden eskusio sozialen arazoak ikusezin bihurtzea, estetikoki ineresatzen ez den oro garbitzea, eta pertsona horiek estigmatizatzen segitzea.

Askatasun sexualak denok erabili beharko genituzke berdintasunez. Koordinakunde hau ez da inoiz ados egongo sailkapen sexualak bultzatzen dituzten arautzeekin (lege, ordenantza edo konbenio kolektibo itxura hartuta ere); beraietan ezartzen baita zeintzuk diren sexualitate onak eta zeintzuk txarrak; beraietan mugak jartzen baitira sozialki eta sexualki pribilegio gehiago eta izen ona izan dutenen eta igurumarietara kanporatuak izan direnen artean.

AGER GAITEZEN GAREN BEZALA, ASKOTARIKOAK, OSO ASKOTARIKOAK.

DEBEKUAK EZ DIRA BIDE ASKATASUNETAN AURRERA EGITEKO.

BILBO ANITZAREN ALDE, KALEA ERE GEUREA DA .

SEXU-ASKATASUNA

PRACTICA LIBERTAD

OKUPA DEZAGUN KALEA